



## Bidaurretan

-1-

Bidaurretan klaratar  
konbentu ederrean,  
argitasuna dago  
dizdiz dizdizean.  
Emen ez ta illunik  
ate ta barruan,  
dana ikusten dala  
argi ta gorbian,  
Zeruko Eguzki Andia  
dagolako bertan.

-3-

Monumentu ederrak  
daduzka Oñatik,  
baña ez Bidaurretak  
daukan antzekorik.  
Jaunak egiten ditu  
laguntza bagarik,  
sorkari eder bikañak  
gizakiz jantzirik,  
zeruko aingeruekin  
ia bardindurik.

-5-

Gaurko mundua da  
egarri utsean,  
danetan gozatuta  
asetu eziñean.  
Iturri bat ba dogu  
Sagrario ondoan,  
asetuko leukena  
edonor beingoan,  
Jainkoaren grazia  
edanada otoitzean.

-2-

Lorategi eder bat  
dogu Bidaurretan,  
gorri, txuri, orlegi...  
milleka margotan,  
Mota askotako lorak  
ditugu munduan,  
baña bizi diranak  
gorputz ta animan,  
bakar-bakarrik dagoz,  
klaratar etxean.

-4-

Ba daukat nik ontzi bat  
usai gozoduna,  
Bidaurretara urbilduz  
usmatzen dodana.  
Ezta ustel usai  
munduak daukana,  
zerutarra da oso  
gozo gozoena,  
Jesussek gurutzetik  
zabaltzen dauana.

-6-

Egunak joan eta  
egunak etorri,  
gaurkoa agertu jaku,  
erabat pozgarri.  
Artu nire partetik,  
eskerka ugari,  
otoitzakin batera,  
Mezan bereziki,  
gero zeruan danok  
gaitezen ikusi.

Munetxek. 10.07.27

olerkia